

— KALITATE, INGURUMEN ETA LANEKO SEGURITATE ETA OSASUN POLITIKA


ULMA HANDLING SYSTEMSen, barne logistikako irtenbide integralak diseinatu eta garatzen dituen ingeniari-tza (fabrikazioa, muntaketa eta martxan jartzea) eta honi lotutako saldu osteko zerbitzuak, badakigu gure zerbitzuaren bikaintasuna, **bezeroarenganako** eta merkatuarenganako kezka etengabearen oinarritzen dela. Horregatik, ondorengo puntuekin konpromisoa dugu: **etengabeko hobekuntza**, gure jarduerari dagozkion **betebehar** legalak, arauzkoak eta bestelakoak betetzea, **ingurumena** eta erakundea osatzen duten pertsona guztien segurtasuna eta osasuna babesteko kudeaketa proaktiboa, gure jardueren arriskuak murriztuz.

Politika honen hedapenean, **enpresaren** hainbat **ezaugarri** garatu eta sustatu ditugu:

- **Inguruaren ezagutza, partekatutako estrategia eta kolaboratzaile sare baten garapena.**
- **Enpresa-kudeaketa berritzailea etorkizuneko berme gisa.**
- **Bezeroaren beharretara egokitzeko malgutasuna:** irtenbide, zerbitzu eta produktu aukera zabala eskainita.
- **Aberastasuna sortu eta barne hondakinak ezabatzea:** ikasteko konpromisoarekin prozesuen efizientzia maximoa eskuratuta, erakundeko jarduerak hobetuta eta pertsonengan eta ingurumenean eragindako eragina gutxituta.
- **Pertsonak eta ingurumena babesteko kudeaketa aktiboa:** erakundeko pertsona bakoitzaren eguneroko eginkizunetan gainontzekoenganako (barnekoak eta kanpokoak, azpikontratatuak) erantzukizuna eta ingurumenagatiko errespetua integratuta.
- **Baliabide energetiko eta materialak minimizatzea:** produktu eta zerbitzu berrien diseinu eta inplementazioan ingurumen irizpideak izango dituzten irtenbideak eskainita.
- **Trakzio lanak:** ingurumena eta langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gure esfortzuak UHS erlazionatzen den taldeetan txertatuta.
- **Prebentzioaren kultura ezartzea,** erakundea osatzen duten pertsonen eta prebentzioko ordezkarien kontsulta eta parte-hartze aktiboa bermatuz.
- **Tokiko hizkuntza den heinean, euskaraz ere lan egitea** eta hori lortzeko baliabideak kudeatzea.

Horregatik, gure Politika bikaintasunaren bilaketan eta gure intereseko taldeen asebetetzean oinarritzen da beraien kokapena edozein delarik; baita ere gizartean, kalitatezko lana sortuz eta kultura eta gizarte garapena sustatuz. Horretarako, zuzendaritzatik UHS osatzen dugun pertsona guztien konpromisoa lantzen dugu. Gure zerbitzu, produktu eta irtenbideetan etengabeko perfekzioa landuz.

Sistematizatzeko eta gure politika zabaltzeko, Kalitate-Ingurumen eta Lan arriskuen Prebentzio sistematika garatu dugu (ISO 9001, ISO 14001 eta ISO 45001 arauak jarraituz) behar diren baliabideak izendatuz eta erreferentzia marko iraunkor bezala erabiliz.



Sin.: Alvaro Martinez de Lagos
UHSko zuzendari nagusia